01 24

ARAIA : ANAGLIFO

Asparrena Lautadan kokatutako Arabako udalerri bat da. Haren herri gune nagusia Araia da. Aratz mendiaren (1442 m) oinean kokatuta dago (600 m kota)

Anaglifo bat bi dimentsioko irudi bat da. Hura hiru dimentsioko efektu bat sortzeko gai da, begi bakoitzerako kolore desberdineko kristalak dituzten betaurreko batzuekin begiratzen bada.



Ortoargazkia irudia eskuinean kokatutako anaglifoarenarekin konparatzeko erabili da.

Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Ez da teknologia berri bat eta ez dago informatikako garaiarekin lotuta, XIX. mende amaierakoa baita. Bata bestearekiko albo baterantz mugituta dauden koloredun bi geruzek irudiak osatzen dituzte.

Oro har, geruzetako bat gorria izaten da eta bestea, berriz, urdina, horiek ikusteko betaurrekoen kristalen koloreak bezala.

Anaglifoei betaurrekorik gabe begiratzen bazaie, hiru dimentsioko efektua atzemateko aukera galdu ezezik, koloreko masen ertzei irudia irakurtzea eragozten duen kolore gorrixka eta urdinxka ematen die.



Anaglifo 2015. Iturria. Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 556817 m // Y: 4749378 m.

Araiako anaglifoan ikus daiteke koloredun arrastoak argazkiaren goiko alderantz beheko alderantz baino nabarmenagoak direla. Hori gertatzen da, hura erliebe gogorreko zonaldea delako, Aratz menditik gertu (iparralderantz egongo da). Anaglifoan ikus daitekeen kotari handieneko zonaldea 1100 metrokoa da.